

Kutxa Kultur Gauak-en sartzeko segurtasun baldintzak eta neurriak



- Edukiera mugatua izango da.
- Sarrera 3€ kostako da (kontsumizioa barne, ekitaldira sartu orduko zerbitzatuko dena).
- *Izanezberdin* eta *Gaztedi* ekitaldiak doakoak dira, baina aldez aurretik sarrera erreserbatu behar da.
- Sarrera online (era gomendatua) eskuratu ahal izango da, edo leihatilan (ekitaldia baino ordubete lehenago Tabakalerako informazio-gunean).
- Ekitaldira sartzeko, sarrera formatu elektronikoa aurkeztu behar da.
- Pertsona bakoitzeko 4 sarrera erosi ahal izango dira gehienez, eta batera erosi eta ekitaldira batera joaten direnei bakarrik ziurtatuko zaizkie ondoz ondoko eserlekuak.
- Ekitaldira sartzea pixkanaka egingo da, jende-pilaketak saihesteko. Ezinbestekoa da sarrera-txartelean adierazitako orduan esparruan egotea.
- Ondorengo kontsumoak WhatsApp bidez eskatuko dira, jarlekua adieraziz. Zerbitzariak aukira eramango dio edaria, eta txartel bidez ordainduko du kontsumitzaileak.
- Nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea, betiere segurtasun-distantzia errespetatzen ez bada.
- Behin ekitaldia amaituta, aretoko langileek emango dituzten jarraibideen zain egon beharko dute ikus-entzuleek beren eserlekuetan.